Copia

**Bizkaia**

iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila
departamento de sostenibilidad y medio natural

AYUNTAMIENTO DE CARRANZA
KARRANTZAKO UDALA
BIZKAIA
ENTRADA - SARRERA
Nº 3232
FECHA-EGUNA 15.10.2020

KARRANTZAKO UDALEKO ALKATE
UDALBATZARBURU JAUNA.
SR. ALCALDE-PRESIDENTE
DEL AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE CARRANZA
BARRIO CONCHA, 1
48891 – KARRANTZA HARANA/VALLE DE CARRANZA

Bilbo, 2020ko urriak 9

Bilbao, 9 de octubre de 2020

Gaia:

"KARRANTZA HARANEKO EDATEKO URAREN TRATAMENDURAKO ESTAZIO BERRIA. II. FASEA: OBREN BETEARAZPENA ETA ABIAN **JARTZEA" OBRAREN USTIAPENA,** KONTSERBAZIOA ETA MANTENUA BAINA TIULARTASUNA EMATEKO KARRANTZA HARANEKO UDALARI AKTA.

Asunto:

ACTA DE ENTREGA PARA LA EXPLOTACIÓN ,CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LA OBRA DE "NUEVA ESTACIÓN DE TRATAMIENTO DE AGUA POTABLE DEL VALLE DE KARRANTZA.FASE II:EJECUCIÓN DE LAS OBRAS Y PUESTA EN MARCHA Y CESIÓN DE LA TITULARIDAD A FAVOR DEL AYUNTAMIENTO DE **KARRANTZA"**

2011ko urtarrilaren 10ean BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN INGURUMEN SAILAK ETA KARRANTZA HARANEKO UDALAK LANKIDETZA HITZARMENA SINATU ZUTEN PROIEKTU HONETAN JASOTAKO HORNIDURA-OBRAK GAUZATZEKO: *Karrantza Haraneko edateko ura tratatzeko estazio berriaren obrak gauzatzea eta martxan jartzea.* 2014ko otsailaren 21ean Aldundiak obrak jasotzeko akta sinatu zuen, eta obra horiek hamabi (12) hilabeteko berme-epea izan zuten.

Con fecha 10 de enero de 2011 se suscribió el CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE ABASTECIMIENTO INCLUIDAS EN EL PROYECTO SIGUIENTE: *Ejecución de las obras y puesta en marcha de la nueva estación de tratamiento de agua potable del Valle de Karrantza.* El 21 de febrero de 2014 se suscribió el Acta de Recepción de las obras por parte de esta Diputación, teniendo éstas un plazo de garantía de doce (12) meses.

Hitzarmenaren zazpigarren klausulak ezartzen duenez, *obren harrera egin ondoren, Karrantzako Udalak bere gain hartuko du obra horien eta behar bezala funtzionatzeko behar diren instalazioen ustiapena, bai eta horietatik erator daitezkeen betebehar eta konpromisoak ere*

La cláusula séptima del convenio establece que, *una vez producida la recepción, el Ayuntamiento de Karrantza asumirá la explotación de dichas obras y de las instalaciones necesarias para su correcto funcionamiento, así como de las obligaciones y compromisos que pudieran derivarse de las mismas.*

2014ko martxoaren 3an, Udalari idazki bat bidali zitzaion obrak entregatu zirela jakinarazteko, eta idazki horri izenburu hau zuen agiria erantsi zitzaion: "*Karrantza Haraneko edateko ura tratatzeko estazio berria. II. fasea: obrak gauzatzea eta martxan jartzea" obra ustiatu, kontserbatu eta mantentzeko entrega-akta*". Udalak agiri hori sinatuta itzuli behar zuen, aipatutako hitzarmena sinatu zuenean hartu zuen mantentzeko betebeharra onartzen zuela adierazteko.

Con fecha 3 de marzo de 2014 se remitió escrito al Ayuntamiento informando de la entrega de las obras y adjuntando el documento denominado *"Acta de Entrega para la explotación, conservación y mantenimiento de la obra "Nueva Estación de Tratamiento de Aguas Potable del Valle de Karrantza. Fase II: Ejecución de las obras y puesta en marcha""*, para su devolución firmada en señal de aceptación de la obligación de mantenimiento contraída con la firma del convenio citado.

NT480000030EG8000000026 10102020 00040008

2014ko ekainaren 13an, Karrantzako Udalak erantzun zuen ez zegoela obrak hartzeko moduan, igaro gabe zegoelako obra horien bermealdia; kasu horretan, ezin zen obra horien titulartasuna laga, eta azaldu zuen ezin zuela azpiegitura erabili.

Horrela, Karrantzako Udalak ez zuen hitzarmenaren zazpigarren klausula bete. Klausula horren arabera udalak bere gain hartuko du obrak eta horien funtzionamendurako behar diren instalazioak ustiatzea, kontserbatzea eta mantentzea, bai eta obra horietatik erator daitezkeen betebeharrak eta konpromisoak ere, behin obrak jaso ondoren. Obren jasotzea 2014ko otsailaren 21ean gertatu zen, eta ez zu zerikusirik Karrantzako Udalak alegatu zuen seigarren klausulan araututako titulartasunarekin.

Ondorio moduan esan daiteke sinatutako Hitzarmenak, seigarren eta zazpigarren klausuletan, hurrenez hurren, tratamendu bereizia jasotzen duela azpiegituraren titulartasunaren transmisioari eta instalazioak ustiatu, kontserbatu eta mantentzeko lagapenaren tratamenduari dagokienez. Azpiegitura udalari lagatzen zaio, obrak jasotzean mantendu, kontserbatu eta ustiatu dezan (zazpigarren klausula); ordea, estazioaren titulartasuna, udalari dagokio berme-epearen eta kontratuaren likidazioaren ondoren (seigarren klausula).

Adierazi den bezala, 2014ko otsailaren 21ean obra jaso zen eta 2016ko otsailaren 4an kontratuaren likidazioa onartu zen.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak ez du eskumenik udal-hornidurako sareak ustiatzeko eta mantentzeko eta, beraz, nahitaezkoa da azpiegitura horien titulartasunari eta kudeaketari dagokienez, egungo egoera erregularizatzea. Horrela, Karrantza Haraneko Udalak bere gain hartuko lituzke bere jabetzakoak diren hornidurarako udal-azpiegiturak ustiatu, mantendu eta kontserbatzeko lanak egiteko ahalorde osoak. Lagapen hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondareari buruzko azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 113. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin eta gauzatu beharko da.

Con fecha 13 de junio de 2014 el ayuntamiento de Karrantza responde no encontrarse en disposición de recepcionar las obras, al no haber transcurrido el periodo de garantía de las mismas, no pudiendo en tal caso cederse la titularidad de las mismas y exponiendo que no puede hacer uso de la infraestructura.

De este modo el ayuntamiento de Karrantza incumplía la cláusula séptima del convenio, la cual establece que el ayuntamiento asumirá la explotación, conservación y mantenimiento de las obras, y de las instalaciones necesarias para su funcionamiento, así como las obligaciones y compromisos que pudieran derivarse de las mismas, una vez producida la recepción. La recepción se produjo el 21 de febrero de 2014 y es algo diferente a la titularidad regulada en la cláusula sexta alegada por parte del ayuntamiento de Karrantza

En conclusión, el Convenio suscrito contiene en las cláusulas sexta y séptima respectivamente un tratamiento diferenciado de la transmisión de la titularidad de la infraestructura y de la cesión de las instalaciones a efecto de su explotación, conservación y mantenimiento. La infraestructura se cede al ayuntamiento para su mantenimiento, conservación y explotación con la recepción de las obras (cláusula séptima), mientras que la titularidad de la estación corresponde al ayuntamiento tras el plazo de garantía y la liquidación del contrato (cláusula sexta).

Como se ha dicho, el 21 de febrero de 2014 tuvo lugar la recepción de la obra y con fecha 4 de febrero de 2016 se aprobó la liquidación del contrato.

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural no es competente en la realización de tareas de explotación y mantenimiento de las redes de abastecimiento municipales, de ahí la obligación de regularizar la situación actual respecto de la titularidad de las citadas infraestructuras y su gestión. De este modo, el Ayuntamiento del Valle de Karrantza-Karrantza Harana asumiría la titularidad y plenos poderes para llevar a cabo las labores de explotación, mantenimiento y conservación de sus infraestructuras municipales de abastecimiento que le son propias. Dicha cesión deberá articularse conforme a lo previsto en el artículo 113 de la Norma Foral 3/2006, de 16 de noviembre, de Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia.

28736855500000266100024

Azaldutakoagatik guztiagatik Udalak 2014ko martxoaren 3an igorri zuen errekerimenduaren bidez ekin behar zion Edateko Uren Araztegi berria ustiatzeari eta mantentzeari, instalazioa erabiltzeko moduan eta baldintzetan baitzegoen. Halaber, titulartasuna 2016ko otsailaren 4tik aurrera laga behar zen, egun horretan likidatu baitzen kontratua.

Beste alde batetik, 2020ko urriaren 2an, aipatutako hitzarmena iraungi egin zen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) zortzigarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoa betez; testu horren arabera lege hori indarrean sartzen denetik gehienez lau urteko iraupena ezarri zen indarraldi jakinik gabeko hitzarmenetarako.

Horrela, bada, egoera hau arautzearen ondoreetarako hilabeteko (1) epea ematen zaio Karrantzako Udalari, idazki hau jasotzen duen egunetik hasita, Karrantzako Udalak "*Karrantza Haraneko edateko ura tratatzeko estazio berria. II. fasea: obrak gauzatzea eta martxan jartzea" obra ustiatu, kontserbatu eta mantentzeko entrega-akta"* agiria igor dezan sinatuta eta titulartasuna onar dezan, bermealdia igaro delako eta, halaber, kontratuaren likidazioa ere eginda dagoelako.

Bestela, aurreko paragrafoan aipatu den hilabeteko (1) epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera azpiegitura horri lotutako kostuak ordaintzeko eskatuko zaio.

Era berean, adierazi diren jasotzearen eta titulartasunaren aurka eginez gero, BFAren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak udalaren ez-betetze horrekiko bidezko legezko ekintzak gauzatzea proposatuko du.

Por todo lo expuesto anteriormente, el Ayuntamiento debiera haber procedido a la explotación y mantenimiento de la nueva ETAP a partir del requerimiento remitido el 3 de marzo de 2014, al encontrarse la instalación en condiciones de ser utilizada. Asimismo, debiera haberse producido la cesión de la titularidad a partir del 4 de febrero de 2016, fecha en la que se liquidó el contrato.

De otra parte, el pasado 2 de octubre de 2020 el convenio citado quedó extinguido, en cumplimiento de la Disposición adicional octava, apartado 1, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (LRJSP), que establece una duración máxima de cuatro años a contar desde la entrada en vigor de dicha Ley, para los convenios sin un plazo de vigencia determinado.

Así pues, con el objeto de regular la situación se le concede un plazo de 1 (un) mes a partir de la fecha de recepción de la presente, para que el Ayuntamiento de Karrantza remita el documento *"Acta de Entrega para la explotación, conservación y mantenimiento de la obra "Nueva Estación de Tratamiento de Agua Potable del Valle de Karrantza. Fase II: Ejecución de las obras y puesta en marcha "* firmado y la aceptación de la titularidad habiendo transcurrido ya el periodo de garantía y habiéndose producido, también, la liquidación del contrato.

En caso contrario, se le requerirá el abono de los costes asociados a esta infraestructura a partir del día siguiente a la finalización del plazo de 1 (un) mes referido en el párrafo anterior.

Del mismo modo, caso de oponerse a la recepción y titularidad señaladas, el departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la DFB propondrá el ejercicio de las acciones legales correspondientes frente a dicho incumplimiento municipal.

Sin./Fdo.: ELENA UNZUETA TORRE - 2020-10-09
IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

Bizkaia
iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila
departamento de sostenibilidad y medio natural

**"KARRANTZA** HARANEKO EDATEKO URAREN TRATAMENDURAKO ESTAZIO BERRIA. II. FASEA: OBREN BETEARAZPENA ETA ABIAN JARTZEA" **OBRAREN USTIAPENA,** KONTSERBAZIOA ETA MANTENUA BAINA TIULARTASUNA EMATEKO KARRANTZA HARANEKO UDALARI AKTA.

Bilbo, 2020ko .........aren .....

2011ko urtarrilaren 10ean Lankidetza Hitzarmena sinatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren eta Karrantzako udalaren artean, zertarako-eta "Karrantza Araneko edateko uraren tratamendurako estazio berria obren betearazpena eta abian jartzea" izeneko proiektuaren barruan sartzen ziren obrak betearazteko.

Horren ondorioz Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak "Karrantza Araneko edateko uraren tratamendurako estazio berria obren betearazpena eta abian jartzea" izeneko proiektua egiteko agindua eman zuen; proiektu horren helburua Karrantza Araneko EUTE berria egitea da. Estazio hori kokatzeko hautatu zen lurzatia La Herran auzoan dago, 505 m-ko batez besteko kotan, eta ezaugarri horrek erraztu egiten du bitarteko nagusia den la Cerroja baltsa grabitatez iristea eta, halaber, irteerako kolektoreek ere funtzionamendu bera edukitzea.

ACTA DE ENTREGA PARA LA EXPLOTACIÓN ,CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LA OBRA DE "NUEVA ESTACIÓN DE TRATAMIENTO DE AGUA POTABLE DEL VALLE DE KARRANTZA.FASE II:EJECUCIÓN DE LAS OBRAS Y PUESTA EN MARCHA Y CESIÓN DE LA TITULARIDAD A FAVOR DEL AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA"

En Bilbao a..... de ...... de 2020

En fecha 10 de enero de 2011 se suscribió un Convenio de Colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente de la Diputacion Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de karrantza para la ejecución de las obras de abastecimiento incluidas en el proyecto: "Ejecución de las obras y puesta en marcha de la nueva Estación de Tratamiento de Agua Potable del Valle de Karrantza."

Por ello, el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia encargó la "Ejecución de las obras y puesta en marcha de la nueva Estación de Tratamiento de Agua Potable del Valle de Karrantza.", que tiene por objeto la realización de la nueva ETAP del Valle de Karrantza. La parcela elegida para su ubicación se encuentra en el barrio de La Herran,situada a una cota media de 505 m,lo cual favorece que el principal recurso que es la balsa de la Cerroja llegue por gravedad ,asi como que los colectores de salida tengan el mismo funcionamiento.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. JT9FV1JG5DJZ5NQ9 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) JT9FV1JG5DJZ5NQ9 en www.ebizkaia.eus

**Bizkaia**

*iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila*
*departamento de sostenibilidad y medio natural*

Proiektu hori hasieran onetsi zen Gobernu Kontseiluak 2010eko irailaren hogeita bederatzian egin zuen bileran.

Obren betearazpena 2010ko abenduaren 21ean Gobernu Kontseiluaren akordioaren bidez adjudikatu zitzaion "UTE Karrantza Construcciones y Excavaciones Poza,S.L-Hidroambiente,S.A" enpresari.

Obrak jasotzeko akta 2014ko otsailaren 21ean sinatu da baina obren likidazioa ez da egingo harik-eta bidezkoa den bermealdia igaro arte. Bermealdi hori 2016eko otsailaren 4an bukatu zen eta orduan ekingo zaio obren titulartasunaren lagapenari.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren eta Karrantzako udalaren artean 2011ko urtarrilaren 10ean sinatu zen Lankidetza Hitzarmeneko zazpigarren klausulan ezarri denarekin bat, jasoketa hori gertatu ondoren, Karrantzako udalak obra horien eta euren funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak diren instalazioen ustiapena burutuko du, eta baita horien emaitzazkoak izan daitezkeen obligazio eta konpromiso guztiak ere.

Karrantzako udalak obren ustiapena bere kargura hartzeak esan nahi du bere ardurapean hartu duen ustiapen horretako obra eta instalazioek jarduteko eta horiek mantentzeko beharrezko jarduketa guztiak egin beharko dituela. Ildo horretatik, eta enuntziatzearren baino ez, udalak bidezko hartuneak burutu beharko ditu eta instalazioen operazio eta mantenurako beharrezkoak izango diren hornikuntza-kontratuak harpidetuko ditu.

El citado proyecto fue aprobado iniciamente mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno en reunión celebrada el día (29) veintinueve de septiembre de 2010.

La ejecución de las obras fue adjudicada mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de diciembre de 2010 a la UTE Karrantza Construcciones y Excavaciones Poza,S.L-Hidroambiente,S.A.

El acta de recepción de las obras fue suscrita en fecha 21 de febrero de 2014, pero la liquidación de las obras no se produjo hasta pasado el correspondiente plazo de garantia, el 4 de febrero de 2016, momento en el que ya se podía proceder a la cesión de propiedad de las obras.

De conformidad con lo dispuesto en la cláusula séptima del Convenio de Colaboración suscrito el entre el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Karrantza con fecha 10 de enero de 2011,una vez producida la recepción, Ayuntamiento de Karrantza asumirá, la explotación de dichas obras y de las instalaciones necesarias para su correcto funcionamiento, así como todas las obligaciones y compromisos que pudieran derivarse de las mismas.

La asunción por parte del Ayuntamiento de Karrantza de la explotación de la obra comprende la realización de todas aquellas actuaciones necesarias para operar y mantener adecuadamente las obras e instalaciones cuya explotación asume. En este sentido, y a título meramente enunciativo, el Ayuntamiento deberá asumir las acometidas correspondientes, y suscribir todos aquellos contratos de suministro que sean necesarios para la operación y mantenimiento de las instalaciones.

Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) JT9FV1JG5DJZ5NQ9 en www.ebizkaia.eus

Bizkaia

iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila

departamento de sostenibilidad y medio natural

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren eta Karrantza Haraneko udalaren artean 2011ko urtarrilaren 10ean sinatu zen lankidetza hitzarmenaren seigarren klausulan ezarri denarekin bat honako hitzarmen honen xede diren obrak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunekoak izango dira obra horiek betearazten diren bitartean. Bidezko obren kontratuaren likidazioa gertatu ondoren Bizkaiko Foru Aldundiaren horren berri emango dio Karrantza Haraneko udalari. Baldin eta Karrantza Haraneko udalak, jakinarazpen hori jasoko den egunaren hurrengotik zenbatuko den HIL BATEKO (1) epean ez badu idatziz erasota uzten desadostasun motaren bat ulertuko da Karrantza Haraneko udalak obra horien titulartasuna onartzen duela ondore guztiekin.

Horrela, honako agiri honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak lagapenean uzten dio instalazio horien ustiapena Karrantzako udalari, baita titulartasuna era, eta horrek jaso egin ditu eta agiri hau sinatu den egunetik hasita bere kargura hartu du instalazio horien ustiapena, kontserbazioa eta artapena.

De conformidad con lo dispuesto en la cláusula sexta del Convenio de Colaboración suscrito entre el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Karrantza con fecha 10 de enero de 2011,las obras objeto del presente convenio serán de titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia durante el periodo de ejecución de las mismas.Una vez producida la liquidación del contrato de obras correspondiente,la Diputación Foral de Bizkaia comunicará este extremo al Ayuntamiento de Karrantza. En caso de que el Ayuntamiento de Karrantza,dentro del plazo de UN (1)MES contado a partir del día siguiente al de la recepción de la comunicación,no hiciera constar por escrito la existencia de algún tipo de disconformidad,se entenderá cedida la titularidad de las obras a todos los efectos,asumiendo el Ayuntamiento de Karrantza la titularidad de las obras.

Así, mediante el presente documento, la Diputación Foral de Bizkaia cede la explotación ,conservación y mantenimiento de dichas instalaciones al Ayuntamiento de Karrantza, así como la titularidad de las mismas, quien las recibe y se responsabiliza de la explotación,conservación y mantenimiento de las mismas a partir de la fecha del presente documento.

INGURUMENEKO FORU DIPUTATUA/
DIPUTADA FORAL DE MEDIO AMBIENTE

Fdo : ELENA UNZUETA TORRE

KARRANTZAKO UDALA/
AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA

Fdo.: RAUL PALACIO PORTILLO

Elektronikoki sinatutako dokumentua. JT9FV1JG5DJZ5NQ9 egiaztapen kode elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) JT9FV1JG5DJZ5NQ9 en www.ebizkaia.eus

Erregistroko irteera Zk./Nº registro de salida: G01202000046643S 10.10.2020 08:16:37

Bizkaia foru aldundia diputación foral

NT480000030EG8000000026 0202204 (A) 20 9007-7279

AYUNTAMIENTO DE KARRANTZA HARANA-VA
SR. ALCALDE-PRESIDENTE
BO CONCHA, 1
48891 KARRANTZA HARANA/VALLE DE CARRA
BIZKAIA

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTZEKO SAILAren jakinarazpena gehitu da, bertan adierazitako administrazio-organoak emandakoa.

Se adjunta notificación del DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL, dictada por el órgano administrativo que en la misma se indica.

Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) JT9FV1JG5DJZ5NQ9 en www.ebizkaia.eus

Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) JT9FV1JG5DJZ5NQ9 en www.ebizkaia.eus